

## **Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean**

*Maidier Huarte. Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola*  
*Jone Ozerinjauregi. Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola*

### **1. Sarrera**

Lan honetan hizkuntzaren jabekuntzari eskolak egiten dion ekarpenaz egingo dugu berba. Badira urte batzuk gure irakaskuntza sistemak hizkuntzaren jabekuntza bultzatzeko ardura hartu duena, ume askok, gehienak ez esatearren, eskolan osatzen dutelako garapen aldi hori. Garai baten etxean egiten zutena oso-osoan, orain eskolarekin batera egiten da. Haur Hezkuntzako geletan hizkuntzaren garapenean aurrera egiten lagundu, estimatu eta bultzatzeko ardura dute irakasleek, beraz.

Horrez gainera, gure hezkuntza sisteman aspaldian da murgiltze ereduak, partziala zein erabatekoa, eta hizkuntzaren jabekuntza sasoian, hau da, 0 eta 3 urte bitartean, umeek bigarren hizkuntza bat erabiltzen dute eta bigarren hizkuntzan bizi izaten dira eskolan; batzuetan ordu guztiak, beste batzuetan ordutegiaren zati bat.

Azken urteetan egin diren eskola ereduaren ebaluaketaren arabera (Etxebarria, 1999; Agirregabiria, 2006; Eusko Jaurlaritza, 2007), murgiltze ereduak emaitza onak eman ditu, batez ere murgiltzea goiztiarra eta erabatekoa izan denean. Eredu horretan bigarren hizkuntzaren erabilera ziurtatuta dago umearen aldetik, eta, ondorioz, Haur Hezkuntzaren amaieran umeek bigarren hizkuntza erabiltzen dute eta hizkuntzaren jabekuntza garaian bi hizkuntzaz jabetzen dira aldi berean.

Hala ere, jardunean diren irakasleek hainbat ardura eta kezka erakutsi dute hizkuntzaren irakaskuntzari begira, orokorrean, eta euskararen sarrera goiztiarrari dagokionez, batez ere. Ondoren aipatuko ditugu batzuk<sup>1</sup>:

- Hizkuntzaren garapen prozesuaren aldi honetan, beharrezkoa da hizkuntzaren irakaskuntza planifikatu eta lantzea, ala nahikoa al da bigarren hizkuntzan murgiltzea hizkuntzaren jabekuntza bultzatzeko? Zehatzak eta behatzeko modukoak dira egiten ditugun jardueren helburuak?

<sup>1</sup> Antzeko kezka batzen dira Hindryckx & Nyssen (2007) lanean.

- Sarritan taldeak handiegiak dira eta zaila izaten da gelan bakoitzaren jarduna behatzea. Horren ondorioz zaila da baloratzea haurraren aurrerapenak, aurrerapenik egon bada, eta zaila da zehaztea zelan edo zertan behar duten laguntza handiagoa.
- Gelan egiten diren hizkuntz jarduera gehienak talde handian egiten dira. Elkarrizketak irakaslea eta gelaren artekoak izaten dira. Hau da, heldua, alde batetik, eta talde osoa, bestetik. Nork egiten du berba talde handian? Zenbat aukera dauka haur bakoitzak esan gura duena esateko? Zenbatetan hartzen du umeak interakzioaren ardura?
- Eta, azkenik, sarritan entzuten duguna eskoletan eta eskoletatik kanpora: euskara erabili erabiltzen dute, baina zelan?

Ondoko orrialdeotan, haur hezkuntzako irakasleek eskoletan bizi dituzten eragozpen horien gainean gogoeta egingo dugu. Aipatutako arazo eta zailtasunak gainditzeko irakasleek eskura izan ditzaketan baliabideez hausnartuko dugu. Horregatik, bertan esaten dena ikastetxeko curriculum proposamena zehazteko eta gelaratzeko argigarria izan daitekeelakoan gaude.

Hausnarketa hau egiteko orduan, oso garrantzitsua izan da ikastetxeko curriculum proposamenak egokitzeko eskaintzen dugun aholkularitza zerbitzua, eta zeregin horretan, bereziki, irakasleekin izandako harremana eta irakasleengandik jasotako kezka eta beharrak; bai eta irakasle eskolan, hizkuntzaren didaktikan, ikasleei ahal denik eta jarraibide zehaztenak eman nahian egindako lana ere.

Lehenengo atalean, eskolan hizkuntzako curriculum zehazterakoan kontuan izan beharreko bi arlo nagusi azpimarratuko ditugu: ikuspegi komunikatiboan oinarrituta eraikitzea, batetik; eta, bestetik, eduki eta helburuen planifikazio sistematikoa egitea.

Ondoren, eta aurreko atalari lotuta, ebaluaketari buruz egingo dugu berba, ebaluaketa formatiboari buruz, hain zuzen ere. Hizkuntza arloan ebaluaketa mota horren helburu nagusia ikasleen ekoizpenak hobetu eta aberasten laguntzea da. Horretarako, lehenengo urratsa eskolako curriculumean deskribatutako helburu eta edukiak behagarriak eta objektiboak izatea da, gero ebaluaketa irizpideak ere zehatzak izateko. Era berean, irizpide horiek ikasleen ekoizpenetan benetako aurrerapenak eragiteko modukoak izan behar dute.

Eskolan, bestalde, irakaskuntza-eremua denez gero, irakasteko estrategiak planifikatzen ditugu: gelaren antolaketa, gelan sortzen diren elkarrekintzak, irakasleek egoeraren arabera eman ditzaketan laguntza motak,

umeen beharren arabeko estrategia bereziak. Artikuluaren azken atalean horretaz egingo dugu berba, ikasleei ematen zaizkien laguntza eta ereduak garrantzitsuak baitira hizkuntzaren garapena eta erabilera bultzatu eta aberasteko.

## 2. Hizkuntzaren irakaskuntza Haur Hezkuntzan.

### Hizkuntza erabili eta landu.

Sarreran azpimarratu dugun moduan, haur eskolek zeregin garrantzitsua dute 0 eta 3 urte bitarteko umeen hizkuntzaren jabeakuntza prozesuan. Gurasoak ez diren hartzaile berriak aurkituko dituzte eskolan eta etxean bizi izan ez dituzten egoera berrietan egin beharko dute berba. Haur Hezkuntzako curriculumean esaten den moduan, “Haur Hezkuntzako etapan hasten, zabaltzen eta dibertsifikatzen dira haurrek jaiotzen direnetik izaten dituzten bizipenak eta komunikatzeko eta adierazteko moduak” (2010:48). Izan ere, hitz egiten ikastea hizkuntzarekin garatzen diren gizarte egoeretan parte hartzen ikastea da. Eta, beraz, hizkuntzaren garapenaren helburu nagusia da gizarte egoera desberdinetan, egoera bakoitzari dagokion moduan erabiltzea hizkuntza.

Hizkuntzaren jabeakuntzaren ikuspegi funtzional hori jasotzen da curriculumean, eta ahozko adierazpenaren funtzio nagusiak honela zehazten dira:

“*Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena* eremuak, etapan, haurrek honako gaitasun hauek eskura ditzaten izango du xede: **Hizkuntza ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz, komunikatzeko, irudikatzeko, ikasteko eta gozatzeko** tresna gisa erabiltzea”. (2010:50)

Curriculumak erakusten duen ikuspegi komunikatibo funtzional hori oso argigarri eta lagungarri izango du irakasleak bere eguneroko lanaren norabidea argitzeko. Erreferentziako dokumentu horrek argi zehazten du haurraren bizitzako lehenengo etapa honetan hizkuntzaren irakaskuntzaren garrantzia. Baina pausu bat harago joaten bagara, beste galdera bat sortzen zaigu. Hizkuntza erabiltzea nahikoa ote da beronen garapena bultzatzeko? Hizkuntzaren jabeakuntzaren garapena estimulatzeko hizkuntza lantzeak zer esan gura du?

Eskola, hizkuntza erabiltzeko ez eze, lantzeko esparrua ere badela azpimarratu gura dugu hemen eta hori arrazoitzen ahaleginduko gara. Eskola eremua, beste gizarteko arlo batzuk moduan, eremu berezia da eta arlo

honek badauka bere zeregina gizartearen aurrean: “gizabanakoak nolabait antolatutako ikaskuntzan parte hartzen duena da, hezkuntza-erakunderen baten baitan bereziki (baina ez nahitaez)” (2005:67)<sup>2</sup>. Arlo akademikoa ikas-teko eremu formala da, horretarako beren beregi sortutakoa. Horregatik, eskolan irakasten duguna planifikatu egiten dugu. Hainbat planifikazio mota daude: malguagoak, itxiagoak, errealitatetik urrunago batzuk edo errealitateari lotuagoak besteak. Era batera edo bestera, planifikatu egin behar da, bestela irakasleok ezin izango dugu justifikatu gizartearen aurrean eremu horretan gure umeei egin dituzten aurrerapenak edo izan dituzten zailtasunak.

Hizkuntzari dagokionez, hizkuntza lantzeko erabilera aberatsak eta askotarikoak modu sistematikoan eta planifikatuan zehaztu eta gelaratu behar ditugu. **Erabilera aberatsak eta askotarikoak** azpimarratu gura dugu; izan ere, batzuetan, eskola eremuak daukan zereginaren berezitasuna dela eta, hizkuntza erabilerak oso artifizialak izaten dira, mugatuak eta gehiegi sinplifikatuak.

Esandakoaren haritik, irakasleen betebeharra da umearen aurrerapenak eta zailtasunak argi identifikatzeko egokia den esku-hartzea bideratzea gelan. Eta hori ondo egiteko ezinbestekoa da hizkuntza arloko helburu eta edukiak zehatzak eta objektiboak izatea, bai eta behagarriak ere. Horrela egin ezik, irakaslearen esku-hartzea intuizioan oinarrituta egongo da. Irakasleen esperientziaren ondorioz garatzen den intuizioa garrantzitsua da, bai; baina hori bakarrik ez da nahikoa haurren eskolako ibilbidean eragina izango duen esku-hartzea prestatzeko.

Planifikazio sistematikoa izateak, ostera, ez du esan gura aurretik nabarmendu dugun ikuspegi komunikatiboa, funtzionala eta bizia alde batera itxi behar dugunik. Baina zelan aukeratu irakasteko helburu eta eduki zehatzak?

Lehenik eta behin 0 eta 3 urte bitarteko haurrek eskuratu behar dituzten gaitasunak ikuspegi funtzionaletik deskribatu behar dira. Horretarako, Europako Erreferentzi Marko Bateratua izan daiteke iturri egokiena. Dakigun moduan, erreferentzi markoa, gaitasun komunikatiboa deskribatzeko, ekintza komunikatiboetan oinarritzen da:

“Pertsonak, **hizkuntz jarduerak** gauzatzeko, **testuinguru** desberdinetan eta baldintza eta muga desberdinen mende erabiltzen dituzte eskuragarri dituzten gaitasunak. **Jarduera horiek gauzatzeko** prozesu batzuk abiarazi behar dituzte, arlo

<sup>2</sup> Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako *Europako Erreferentzia Markoa* dokumentua Europako Kontseiluak argitaratu zuen 2001. urtean ingelesez eta frantsesez. Guk lan honetarako erabili dugun bertsioa HABEk 2005. urtean euskaratua da.

espezifikoetan gai jakin batzuei buruzko **testuak ekoizteko eta jasotzeko**, eta egin beharreko atazak gauzatzeko egokien irizten dieten estrategiak erabili behar dituzte. Jarduera horien gainean duten kontrolaren bidez, parte-hartzaileek beren gaitasunak sendotu edo aldatuko dituzte.” (2005:29)

Bertan esaten den moduan, hizkuntzaren irakaskuntza objektua ez dira egitura linguistikoak, hizkuntza jarduerak baino; izan ere, hizkuntza jarduera horiek ekarriko dute unitate linguistiko batzuk edo besteak erabiltzea. Horretan oinarrituta, Haur Hezkuntzako portfolioan (Alario, 2004) deskribatzen diren hizkuntza abilezien zerrenda benetan interesgarria izan daiteke edukiak aukeratzeko orduan: dokumentu horretan haur hezkuntzako umeek etxean zein eskolan bizi dituzten hizkuntza jarduerak garatzeko izan beharreko gaitasunak zehaztasunez deskribatzen dira trebetasun bakoitzera-ko (ahozko eta idatzizko adierazpena eta ahozko eta idatzizko ulermena).

Baina ze aukera ematen digu gelako egoerak eduki horiek lantzeko haur hezkuntza mailan? Gelan sortzen diren hizkuntza erabilera aukerak hiru multzotan banatu genitzake. Alde batetik, ohitura eta errutinekin lotutako jardueretan egiten diren erabilerak dauzkagu. Bestetik, esperientzia eremu ezberdinetako lana aurrera ateratzeko egiten diren hizkuntza erabilerak daude. Azkenik, hizkuntza propio lantzeko egoeretan egiten diren erabilerak dauzkagu.

Jarraian egoera hauek guztiak kontuan hartuta eta bertan landu daitezkeen abilezia komunikatiboetan oinarrituta, egoera bakoitzean landu daitezkeen edukiak zehazten ahaleginduko gara.

Ohitura eta errutinekin lotutako jardueren artean, elikadura, garbitasuna, loa eta eguneroko harreman egoerak, banakako arreta behar duten egoerak eta korro egoerak identifikatu genitzake. Beti berdin errepikatzen diren egoerak dira eta umeak aurreikus lezake zer gertatuko den: sarrera eta irteerako agurrak, gauzak eskatzeko egoerak, eskerrak ematea, zerbait banatzeko jarduerak, bazkaltzera edo lotara joateko errutinak, korroan egiten diren errutinak, norberaren pozak eta jazoerak kontatzeko harreman egoerak...

Jarduera horietan hizkuntzaren erabilera berberak errepikatuko dira tes-tinguru berdinetan. Bertan formula konbentzional asko agertuko dira, eta egunero errepikatzen diren egiturak ikasiko dituzte egoera esanguratsuetan. Batzuk ohitura linguistiko sozialak izango dira eta beste batzuk egunero egiten diren ekintzei lotuta agertzen diren hizkuntza egiturak.

Egoera	Abilezia komunikatiboa	Unitate Linguistikoak
Sarrera/irteera	Eguneko uneari dagokion moduan agurtzen du.  Jantzi-erantzian arropak norenak diren eta non dauden.	<b>Hiztegia eta esaldi egiturak:</b> Agurrak egiteko: <i>egunon...</i> , <i>arratsalde on ...</i> , <i>bihar arte...</i>  <b>Deklinabidea:</b> <i>Norena da jaka? Non egon da?</i>
Korroan	Eguraldiaren ezaugarriei lotutako hiztegia darabil eta esaldian txertatzen ditu hitzak.  Norbera zelan dagoen eguraldiaren arabera adierazten du.	<b>Hiztegia:</b> eguraldiari lotutako hiztegia. <b>Esaldi egiturak:</b> <i>Gaur eguzkia irten da; euria da; elurra mara-mara dabil botatzen...</i>  <b>Esaldi egiturak:</b> <i>Hotz naiz, bero naiz...</i>
Jatorduak, hamaiketakoa	Jatekoa eskatzeko edo eskaintzeko gaitasuna dauka; besteen gustuko janariei buruz galdetzen du eta bere gustukoak azaltzen ditu.	<b>Esaldi egiturak:</b> <i>Gura duzu...? Gogoko duzu...? Zein duzu nahiago...?</i>  <b>Singularra eta pluralaren bereizketa:</b> <i>Gura d(it)uzu...?; Zeintzuk gustatzen zaizkizu...?</i>
Lotarako ueña	Loari lotutako zenbait esaldi eta aditz egoki erabiltzen ditu.	<b>Esaldi egiturak:</b> <i>Logura naiz; ... loak hartu du; ondo/txarto egin dut lo; amets gaiztoak izan ditut...</i>  <b>Esaldi egiturak:</b> <i>Gaur pozik nago ze neure urteak dira eta... oparitu didate.</i> <i>Atzo jausi egin nintzen eta ... arineketa joan nintzelako.</i>
Bakarkako harreman ueña, talde txikia...	Helduaren laguntzarekin gai da bere bizitzan gertaturiko zerbaiten berri emateko, poza edo atsekabea adierazteko gertatutakoagatik, arrazoitzeko...  Gatazka bat dagoenean, gertatutakoari buruzko bere iritzia ematen du.  Adostasuna/desadostasuna adierazteko formulak erabiltzen ditu.	<b>Aditzaren erabilera:</b> Nor-nori-nork aditzaren erabilera hasten da: <i>oparitu dit...</i> Lehenaldiaren erabilera hasten da.  <b>Esaldi egiturak:</b> <i>Eneko ez du ondo egin ... jo egin nau eta.</i>  Eragozpenak edo kontrako arrazoiak emateko antolatzaileak erabiltzen ditu: <i>bai baina....</i>

Esperientzia arloetan egiten den lanari dagokionez, psikomotrizitatea, plastika, txokoak, matematika eta logika, norbere burua ezagutu eta autonomiaren eremua, inguruneko errealitatearen ezagutzak ditugu, besteak beste. Egoera horietan guztietan hizkuntzaren erabilera arloetan egiten dugun lanari lotuta doa eta erabilera hori ere planifikatu egin daiteke. Egoera horiek aukera paregabea ematen digute hizkuntza lantzeko, esperientzia eta hizkuntzaren arteko lotura erabatekoa delako. Hizkuntzaren erabilera bizia eta motibagarria izango da, hau da, esperimentazioari eta manipulazioari lotua. Izan ere, haurrak hitz egiteko EGIN egin behar dute, eta jarduera mota honetan hitza ekintzari, manipulazioari eta esperientziari loturik egongo da.

Arloetan helburua ez da hizkuntza, baina arloko helburua lortzeko hizkuntzaz baliatuko gara. Irakasleak hizkuntzaren erabilera estrategikoa egin dezake umea ezagutzara bideratzeko eta umeari ezagutza deskubritzen laguntzeko. Jarduera horietan, hizkuntza ezagutza bideratzeko tresna izango da. Hona hemen arloa eta hizkuntza bateratzeak ekar ditzakeen erabilera batzuk:

- Aurrezagutzak adierazi eta hipotesiak egin.
- Zalantzak kanporatu.
- Ekintzak arrazoitu eta justifikatu.
- Kausa-ondorioa loturak egin.
- Gertaera eta ekintzen gaineko usteak azalatu.
- Iritziak arrazoitu.
- Ulertzen ez dena galdetu.
- Proiektu baten gaineko asmoak adierazi.
- Objektu baten ezaugarriak adierazi.
- Gertatutako zerbaiti buruzko iritzia adierazi.
- Egiten ari dena bideratu eta interakzioaren bidez gidatu.

Arloetan erabiltzen den metodologiak berak berba egiteko aukera aberatsak eta ugariak bultzatzen ditu, edo umeen berba egiteko aukerak eta erak mugatu. Arloetako jarduerak planifikatzen ditugunean, ezagutzak lantzeko esanguratsuak izateaz gainera, irakasle eta ikaslearen artean hizkuntza erabilera aberatsak eta ugariak bultzatzeko egokiak diren ere izango dugu kontuan. Horrela, hizkuntzaren erabilera ondo planifikatuko dugu aurretik, jardueraren barruan izan daitezkeen hizketa ekintzak bereiziz, eta interakzio bakoitzean zer lortu gura den aurreikusiz.

Egoera	Ahalezia komunikatiboa	Unitate linguistikoak
Psikomotrizitatea	Ekintzak izendatzeko aditzak erabiltzen ditu. Abestiak eta errima errazak pilotan aritzeko, salto egiteko, esku-jolasak egiteko.. eta mugimenduekin sinkronizatzen ditu: azkarrago edo astiroago.	<b>Hiztegia:</b> Ekintzak izendatzeko aditzak: <i>Zertan dabil/zabiltza...? saltoka, hanka-koxoka, katamar, arineketa... nabil/dabil</i>
Matematika	Eraikuntza bat egiteko behar dituen pieza eskatzen ditu, bere ezaugarriak aipatuz (kolorea, forma, neurria) eta kortesia formula egokia erabiliz. Ezaugarri berdinak dituztenak multzokatu eta arrazoiak ematen ditu.	<b>Hiztegia:</b> koloreak, formak, neurriak <b>Esaldi egitura:</b> <i>Emango didazu, mesedez, ...?</i> <i>Multzo honetan ipini dut ... delako</i> <i>Multzo honetan jarri ditut denak biribilak direlako; ezin da hemen sartu desberdina delako ...</i>
Ingurunearen ezagutza	Ekintzak justifikatu eta arrazoitu egiten ditu. Errealitateko gertaerak justifikatzeko lotura kausalak eta helburuzkoak erabiltzen ditu. Gertatutakoari edo gertatuko denari buruzko usteak adierazten ditu	Gaiari lotutako <b>hiztegia</b> . Errealitateko gertaerak justifikatzeko <b>lotura kausalak eta helburuzkoak</b> erabiltzen ditu. <i>Inurriak hanka asko ditu, bizkor-bizkor ibiltzeko;</i> <i>Goizetan hortzak garbitzen ditugu...-tzeko</i> Usteak azaltzeko: <i>Pentsatzen dut, uste dut, badakit ...</i> <i>Ezin da, egin daiteke ...</i> Formulari lotutako <b>aditz hipotetikoak</b> erabiltzen ditu: <i>Ezin daiteke; egin daiteke; egin nezake...</i>



Egoera	Abilezia komunikatiboa	Unitate linguistikoak
Plastika	Ikusten dituen espazioak, pertsonak, ekintzak deskribatzen ditu oinarritzko ezaugarriak emanez. Egiten dabilen lanaren gainean berba egiten du eta beste norbaitekin batera lan egiten duenean zer egin behar den adierazteko gai da.	<b>Hiztegia:</b> izenak eta izenondoak <b>Esaldi egiturak:</b> ... egiten nabil; pintatzen nabil ... ... lotu egin behar da ... ebaki egin behar da ...
Jolas simbolikoa	Etxetxoa Dendatxoa Mozorroak ...	<b>Hiztegia:</b> etxeko gela eta lekuen izenak; ontzien izenak; elikagai mota batzuen izenak. <b>Esaldi egiturak:</b> dendan, salerosketa egoerako elkarrizketa: -Laranjak nahi ditut, kilo bat, mesedez. -Tori, hemen duzu. 2 euro dira. <b>Mozorrotu aditzaren erabilera:</b> Zelan mozorrotuko zara? Pailazo mozorrotuko naiz. <b>Hiztegia:</b> Arropen izenak – <i>prakak koloreetakoak; zapatak handi-handiak; jaka eta alkandora, kapela, kareta, bizarra...</i>
Jaiak eta ospakizunak	Jai eta tradizio batzuetan erabiltzen diren esamoldeak, abestiak, errefracuak esan edo abesten ditu. Urtebetetzeetan zorionak ematen badaki eta eskerrak emanez erantzuten du.	Koplak, errefracuak, abestiak: Santa Ageda, San Joan, Gabonak, inauteriak... Zorion abestiak. Gonbidapenak eta eskaintzak egiteko esaldi egiturak: <i>zu etor zaitezten gura dut; etorriko zara nire txokoladara?; nahi duzu pastel zati bat?...</i>

Azkenik, hizkuntza lantzeko erabiltzen den denbora berezia dago. Hizkuntza lantzeko helburuarekin tarte bat aurreikusiko da ordutegiaren barruan, eta bertan landuko dira aurreko bi tartetean agertzen ez diren hainbat erabilera:

- Erabilera ludiko-poetikoak: ipuinak, txotxongiloak, olerki laburrak, aho-korapiloak, errefracuak, igarkizunak, abestiak, simulazioa jolas simbolikoan, dramatizazioak eta errepresentazioak, komikiak.
- Ikus-entzunezkoak.

Jabekuntza prozesuan hizkuntzaren osagai linguistiko guztiak eskuratu behar dituzte umeeak. Berba egiteko beharrezkoa da soinuak ondo eta argi ahoskatzen ikastea; hitzen esanahi zehatzak bereizten ikastea; hitzen arteko konbinazio egokiak antolatzen ikastea. Baina ezagutza guzti horiek, hau da, fonetikoak, joskera arlokoak, lexiko-semantikoak, ez dira izango ikas-

keta helburu berez. Umeen adierazpena eta arreta ez dute gidatuko osagai formal horiek. Helburu komunikatiboak gidatuko du unitate linguistikoen erabilera. Eta ekintza komunikatibo bakoitzak ekarriko du berekin osagai linguistikoen erabilera, abilezia komunikatiboen bitartez.

Egoera	Abilezia komunikatiboa	Unitate linguistikoak
Hizkuntza: Ahozko Literatura	Aho korapilo, errima, errefrauak esaten ditu.	<b>Errimak:</b> <i>Hamahiru, aitonak amona nahi du; Urduri dabil domingo ez dau ezer egingo...</i>
	Ipuin hasiera eta amaierako esaldiak ezagutu eta esaten ditu.	<b>Ipuinetan:</b> <i>Bazen behin, antzina-antzina bizi zen, behinola, ...</i>
	Ipuinetako pertsonaiak izendatu eta esaldiren bat erreproduzitzeko gai da.	<i>Handik aurrerantzean pozik bizi ziren, handik aitzina zorioneko bizi ziran;</i>
	Testu zatiren bat esaten du antzerki lan txiki baten.	<i>Hala bazen ez bazen sar dadila kalabazan eta irten dadila Zeanuriko plazan...</i>
	Igarkizunetara jolastuz gero, esamolde eta hiztegi egokia darabil.	<b>Igarkizunen jokoan:</b> <i>ikusi-makusi! Zer ikusi!...</i>
	Txotxongiloak ikusten dituenean poza adierazteko esamoldeak erabiltzen ditu.	<b>Esaldi egiturak</b> eta juntagailuarekin.
Ipuin kontaketa entzuten dagoela beldurra, poza, sorpresa ... adierazteko esamoldeak erabiltzen ditu.	<b>Esaldi egiturak:</b> <i>Ipuinetan, txotxongiloetan, antzerkia ikusten, sentsazioak adierazteko:</i> <i>Ze ondo! Badator ipuin kontaketa! Ederto pasatuko dugu!</i> <i>Hori bai beldurgarria! Ikaratu egiten nau! Zelako beldurra</i> <i>Ikaragarria da otsoa! Zelako haginak!</i>	

Hizkuntzaren curriculuma eraikitzeke, beraz, ezinbestekoa dugu ikuspegi komunikatiboa ardatz izatea, ikuspegi horrek bilduko baititu ikasleek hizkuntza garatzeko landu behar dituzten arloak. Era berean, ezinbestekoa da irakasleek kontuan izatea komenigarria dela hizkuntzaren jabetzaren edo garapen prozesuan laguntzeko, hizkuntza erabiltzea ziurtatzeaz gain, egoera bakoitzean naturalak diren erabileretan landu daitezkeen abilezia eta unitate linguistikoak zehaztea.

Sarreran aipatutako lehenengo kezkari erantzunez, beraz, bigarren hizkuntzan murgiltzeaz gainera, hizkuntzaren erabilera landu eta planifikatzen badugu gelan, hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera optimizatuko dugu.

Proposatzen dugun zehaztasun maila hori lortuz gero, irakasleak gelan duen gidari rola erraztuko dugu: batetik, ikasleen ekoizpenak hobetu eta aberasteko jarraibideak eskura izango dituelako eta bestetik, ebaluaketa formatiboa erabiltzeko aukera paregabea izango duelako, bere esku-har-tzea gelan dituen haurren gaitasunetara egokituz.

### 3. Ebaluaketa

Gure eskoletan sarritan izaten den beste kezka bat ebaluaketa da. Zer ebaluatu, zertarako ebaluatu, zelan ebaluatu? Ebaluaketaren helburu nagusia haurraren aurrerapen eta zailtasunen gaineko informazioa batzea izango da, horrela, ume bakoitzak behar dituen laguntzak zehaztu eta planifikatzeko. Hori egiteko ezinbestekoa da ebaluaketa oso zehatza eta sistematikoa izatea, haurrak eskuratu duen edo indartu behar den hizkuntz baliabideari buruzko informazioa eman behar baitigu. Izan ere, horixe da ebaluaketa formatiboa egin ahal izateko lehenengo urratsa: zer irakatsi behar dugun esplizitatzea.

“Ebaluatzeke teknika egokiena haurraren behaketa zuzena eta sistematikoa da. Garrantzitsua da irizpide argiak izatea, behagarriak eta erregistra daitezkeenak. Irizpide horiek ikas-kuntza-estrategiak eta prozesuak diseinatzeke, egokitzeko eta banakatzeko aukera eman behar dute” (2010:67)

Hala ere, sarritan haurren produkzioei buruz balorazio orokorregiak eta subjektiboak egiten ditugu. Ebaluaketa irizpideak ez dira nahiko argiak eta zehatzak irakasleek euren jarduna moldatu eta ikasleei behar dituzten laguntzak emateke. Adibidez, *Komunikazio egoeretan ez ditu erantzun egokiak ematen*; edo *Komunikazio estrategia egokiak erabiltzen ditu bere beharrak adierazteke*.<sup>3</sup>

Beste batzuetan, ostera, egiten ditugun balorazioak hizkuntzaren arauetara begira daude eta morfologia, ahoskera eta sintaxiaren erabilera normatiboa bilatzen dute. Hori gerta dakiguke, esaterako, honelakoak egiten ditugunean: *noren eta nongo deklinabide kasuak darabiltza* edo *r bikoitza zuzen aboskatzen du*. Baina, horiek zuzendu eta gero ere, haurren ekoizpenetan egokita-

<sup>3</sup> Euskal Curriculumean (2010: 57) ebaluaketa irizpideen atalean, honela daude formulatuta: “Ea harremanetako komunikazio-egoeretan gero eta erantzun zabalagoak eta egokiagoak ekoizten dituen”

“Ea modu bateko edo besteko komunikazio-estrategiarik erabiltzen duen bere beharrak, sententziak eta nahiak adierazteke”.

sun, aberastasuna eta naturaltasuna falta dela ikusten dugu eta egoera komunikatibo jakin batzuetan parte hartzeko arazoak dituztela.

Zer ebaluatuko dugu, beraz, ikasleen ekoizpenetan benetako aurrerapenak ikusteko eta ikasleei behar dituzten laguntzak emateko *komunikazio egoeretan erantzun egokiak eman ditzaten* edo *komunikazio estrategia egokiak erabil ditzaten euren beharrak adierazteko?*

Galdera honen erantzuna aurreko atalean esan dugunari erabat lotuta dago. Abilezia komunikatibo zehatzak irakasten baditugu, dagozkien ekintzei lotuta, eta egoera desberdinetan ikasleek erabili behar dituzten hizkuntza egiturak deskribatuta, ebaluazioa ere zehatza izango da. Irakasleak zein abilezia diskurtsibo hobetu duen edo zeinetan eman behar zaion laguntza berezia jakingo du; era berean, esku-hartze proposamena egokitzeko argibideak ere jasoko ditu.

Ondoko adibideetan, ebaluazio irizpide orokorrak nola zehaztuko genituzkeen erakutsiko dugu.

Ebaluaketa irizpide orokorra	Ebaluaketa irizpide zehatza
Sentimenduak, sentsazioak modu egokian adierazteko gai da	<p>Ipuin kontaketa entzuten ari denean:</p> <p><i>Ipuina entzuteko prestatzean, poza adierazteko gai da honelako esamoldeak erabiliz: ze ondo! Badator ipuin kontaketa! Ederto pasatuko dugu!</i></p> <p>Txotxongiloen ikuskizunean:</p> <p><i>Beldurra adierazten du honelako adierazpenak erabiliz: Hori bai beldurgarria! Ikaratu egiten nau! Zelako beldurra!</i></p>
Komunikazio egoeretan estrategia egokiak erabiltzen ditu	<p>Gai bat lantzen ari garenean elkarrizketa egoeran, Bere usteak edo suposizioak adierazten ditu gai baten gainean, geroaldia erabiliz:</p> <p><i>Hori hondoratu egingo da!; gorria izango da!...</i></p> <p>Bere usteak edo suposizioak adierazten ditu elkarrizketa egoeran gai baten gainean, hipotetikoa erabiliz:</p> <p><i>Hori uretan jarriz gero, hondoratu egin daiteke/liteke.</i></p>
Ahozko hizkuntza erabiltzen du komunikatzeko	<p>Gelan gatazka bat sortu denean, elkarrizketa egoeran, zer gertatu den esaten du ekintza izendatuz:</p> <p><i>Jo egin nau; kendu egin dit; bota egin du; bultza egin dit ...</i></p> <p>Baloratu egiten du ekintza edo egoera aditzondo bat erabiliz:</p> <p><i>Oso gaizki egin du; triste-triste jarri naiz</i></p> <p>Gertaera baloratu eta gero, arrazoi bat ematen du, "eta" juntagailua erabiliz edo zergatizko esaldiarekin:</p> <p><i>Oso gaizki egin du, bultza egin didalako; triste jarri naiz, min eman didalako</i></p>

Ebaluaketa irizpideok oso koherenteak dira aurreko atalean deskribatu ditugun edukien zehaztapen mailarekin, izan ere, irizpide horiek egoera desberdinetan martxan jar daitezkeen abilezia komunikatiboak dira.

Hala ere, eta ebaluaketa irizpideak egoki deskribatuz ere, beste zenbait arlo izan behar ditugu kontuan ebaluaketa formatiboa aurrera eramateko eta ebaluaketa ikasketa prozesuan barneratua izan dadin. Izan ere, edozein esku-hartze proposamen ez da egokia ebaluaketa hezitzailea egiteko. Bartzuetan irakaskuntza erabat espontaneo da adin tarte honetan, eta horrela-

koetan ebaluaketa irizpide zehatzak aplikatzea ezinezkoa da. Beste batzuetan, ordea, ariketa mekanikoak eta analitikoak egiten ditugu hizkuntza lantzeko, eta horrelakoetan ere ebaluaketa formatiboak ez du lekurik. Beraz, zelan planifikatu esku-hartze egoerak hizkuntzaren erabilera anitzak eta aberatsak ziurtatzeko, batetik, eta ebaluaketa hezitzailea bideratzeko, bestetik? (De Diego, 1998). Ondoren galdera horri erantzuten saiatuko gara.

#### **4. Esku-hartze egoerak antolatzekeo estrategiak**

Goragoan azpimarratu dugunez, hitz egiten ikasteko beharrezkoa da gizartearen garatzen diren egoera komunikatiboetan parte hartzea, hizkuntzaren erabilera erreala eta naturala eginez. Hasiera baten, hurrek parte hartzen duten egoera horiek familiaren eremuan kokatzen dira. Apurka-apurka egoera komunikatiboak ugartuz doaz haurraren bizitzan, eremu berriak (eskola), solaskide berriak eta asmo komunikatibo berriak agertu ahala.

Etxeko testuinguruan, umeek helduaren esku-hartze espontaneo eta naturalaren laguntzaz ikasten dute hitz egiten. Eskolan ere hizkuntzaren berezko erabilera horri jarraipena ematen ahaleginduko gara. Hala ere, eskolak duen xede pedagogikoak hizkuntzaren irakaskuntza planifikatzen behartuko gaitu. Horretarako, kontuan izan beharko dira, batetik, gelan berez sortzen diren egoera komunikatiboak, egoera horiek ahal denik eta ondoen aprobetxatzeko. Bestetik, aurreikusi beharko dira haurrak bizitzan izango dituen bestelako beharrezko komunikatiboak, gelan berez agertuko ez liratekeen egoera komunikatiboak bertara ekarrita, haurrak hizkuntzaren erabilera berezi horietan trebatzeko.

Ildo horretatik, gurasoek dituzten asmo didaktikorik gabeko jokabide asko, irakasleek bereganatuko dituzte irakasteko asmoarekin. Familian izaten diren estilo komunikatibo eredugarriak eta eskolara eramateko modukoak direnak hartuko dira kontuan adin honetan. Irakaskuntza estilo aktiboak jarriko dira martxan gelan (Etxebarria 2008), haurrak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte har dezan. Haurra protagonista den eredu didaktiko horietan ere irakasleak du ikasketa prozesuaren erantzukizuna, ikasleek parte hartzeko egokiak diren egoerak sortu eta garatu behar dituelako, batetik, eta esku hartzean haurrei emango dizkien laguntza eta ereduak planifikatuko dituelako, bestetik.

Haur hezkuntzako gelan irakasleek hizkuntzaren garapena sustatzeko duten eginkizunean lagungarria izan daiteke ondorengo puntu hauen gaineko hausnarketa egitea: bata, elkarrekintza egoeretan ikasleek izango duten parte-hartzearen gainean; bestea, berriz, irakasleek elkarrekintza egoera horietan haurrei eman diezazkiekeen laguntza moten gainean.

#### 4.1. Elkarrekintza egoerak

Eskolako ordutegiaren barruan edozein une eta egoera da egokia komunikazioa estimulatu eta lantzeko. Irakasle eta ikaslearen arteko buruzburuko egoerak familian umeek bizi izan dituzten egoeren antzekoak dira eta, horregatik, garrantzitsua da horrelako momentuak bilatzea. Talde txikietan egiten den lanean ere, komunikazio egoera interesgarriak sortzen dira, esaterako, ikasleen artean jardueraren garapena negoziatzen ari direnean. Talde handiak ere komunikatzeko aukera ematen du, esaterako, ikasleek gelan gertatu den gatazka baten aurrean iritzi ezberdinak azalerraten dituztenean.

Horietan guztietan ezinbestekoa da irakasleak aurreikustea hurrek zein egoeratan hartuko duten parte, elkarrekintza nortzuen artean izango den, talde handian ala txikian izango den, ardura nagusia nork hartuko duen, edota bere rola zein izango den, besteak beste.

Sarreran aipatu bezala, Haur Hezkuntzako geletan askotan arazoa izaten da irakaslearen gehiegizko parte-hartzea. Gure ustez, irakasleak ziurtatu egin beharko luke interakzioa partaide desberdinen artean gertatuko dela. Hortaz, alde aurretik ezarri dituen helburu linguistiko eta komunikatiboekin batera, haurren parte hartzea zein interakzio motaren bitartez lortuko den aurreikusi beharko luke. Hona hemen bakoitzaren ezauzgarri batzuk:

a) **Talde handia.** Orokorrean, gelako hizkuntza jarduerak talde handian egiten dira. Talde handian egotearen alde onak asko dira, beste batzuen artean: talde sentimendua indartzea, taldean bakoitzak daukan rola eta bakoitzak ekartzen duena azpimarratzea, ikuspuntuak trukatzeta, eta abar. Egoera horietan, baina, zaila da ikasleen parte hartzea kudeatzea. Hiztunak direnak elkarrizketaren protagonismoa bereganatuko dute sarritan, haur lotsatiago edo hizkuntza hain garatuta ez daukatenen kalterako. Eta zaila da ume guztiek parte hartzen dutela ziurtatzea. Halaber, talde handian zailagoa izaten da umeen arreta mantentzea.

Horrek sor ditzakeen zailtasunak edo eragozpenak arintzeko, gai bera hainbat egunetan landu daiteke. Horretarako, egunegun parte hartuko duten umeak alde aurretik aukeratuko lirateke. Modu horretan, ikasle guztien parte-hartzea ziurtatuko genuke. Gainera, jarduera horretan emandako denborari neurria hartuta, umeek arreta ez galtzea ahalbideratuko genuke.

Talde handiaren aurrean berba egitera anima ditzakegu haurrak, korroan errutinak egiten ditugunean, bizi izandako esperientzia bat kontatu nahi diegunean ikaskideei, ikasi edo aurkitu dugun zerbait jakinarazi nahi diegunean besteei.

b) **Talde txikia.** Aurretik esandako guztiagatik, garrantzitsua da talde handian ez ezik, momentu batzuetan ikasleak talde txikiagoetan ere antolatzea.

Ikasleek talde handian egiten duten hizkuntzaren erabileran oinarrituta, talde homogeenetan batzea erabaki genezake, beti ere jardueraren zailtasunaren arabera eta ezarri diren helburuak eta landuko diren gaitasunak kontuan izanda. Taldeak modu homogeenan antolatzeak baditu abantailak: ume batzuen protagonismoa saihestuko dugu eta hain berbalduak ez diren umei jardueran modu aktiboagoan parte hartzeko aukera gehiago emango diegu eta, horrela, hizkuntza gaitasunak lantzeko egoera egokiak sortuko ditugu. Era berean, irakasleak umeak hobeto behatuko ditu eta euren aurrerapenak eta zailtasunak erregistratuko ditu. Horren arabera, eman beharreko laguntzak planifika ditzake.

Beste egoera batzuetan, ostera, interesgarria izan daiteke talde txiki horiek heterogeenagoak izatea. Hiztunak eta ez hain hiztunak diren haurrak modu orekatuan nahasten baditugu, hizkuntzaren erabileran aktiboagoak diren haurren jarioak, besteak “animatzeko” balio dezake.

Edozelan ere, dela talde homogeenan, dela talde heterogeenan, argi dago zenbat eta txikiagoa izan “hizketa taldea”, orduan eta hitz egiteko aukera gehiago izango dutela partaideek. Gainera, helduak umearenganako hurbiltasuna lortuko du, eta, esan dugun moduan, hori garrantzitsua da, ume bakoitzak dituen erraztasunak eta zailtasunak identifikatzeko eta, modu horretan, bere lana hobeto planifikatu eta zehazteko.

Talde txikian berba egiteko uneak hainbat izan daitezke egunean zehar:

- Harrera ordua egokia izan daiteke, talde txikietan berba egiteko, askotan haur batek ekarritako jostailu, objektu edo anekdota baten gainean berba egiteko modu naturalean elkartzen direlako euren artean.
- Jarduera bat nola eramango luketen aurrera adosten jartzen ditugunean.
- Irakaslearen eta umeen arteko ikasketa egoerak sortzen direnean landu beharreko arlo baten inguruan.
- Jolas sinbolikoan, rol jakin batzuk ematen dizkiegunean, hainbat elkarrizketa mota sortzen dira haien artean.



c) **Buruz buruko elkarrizketak.** Azkenik, helduak eta haurrak dituzten buruz buruko elkarrizketak lagungarriak izan daitezke irakasleak talde txikian behatutako gaitasunen garapenean laguntzeko.

Bakarkako interakzio egoerak urriak izaten dira gelan. Horretarako une egokia izan daiteke goizean, harrera egiten diegunean. Hala ere, eguneko edozein une aprobetxatuko dugu horretarako.

Irakaslearen ardura izango da, beraz, haur guztien gaitasun linguistikoak garatzeko ikasketa egoera egokiak aukeratzea eta egoera bakoitzak haurrei eskaintzen dizkien hitz egiteko aukerak aztertzea eta planifikatzea. Alde horretatik, haurrak egoera desberdinetan jarriko ditugu, egoera horretara egokitzen ikas dezaten.

#### **4.2. Irakaslearen rola elkarrekintza egoeretan**

Eskolan irakasleak izango du ardura nagusia elkartrukeak erregulatze-ko unean. Irakasleak haurrekin garatzen dituen elkartruke egoera komunikatiboak ikasketa prozesu bihurtuko ditu. Haurrei hitza emango die eta berak esaten duenak eta esateko moduak ikasleengan garapen progresiboa ahalbideratuko du.

Vigotskyk landutako Garapen Hurbileko Eremuaren kontzeptuaz berba egiten ari gara, izan ere, oinarri teoriko hori abiapuntua izango da irakasleak haurrari eman diezazkiokeen laguntzak planifikatzeko orduan. Nozio horren bidez azaltzen dugu nola adituak eta ez hain adituak diren arteko elkarrekintza egoerak ikasketa egoera bihurtzen diren. Irakaslea (aditua) umearen garapen hurbileko eremuan kokatuko da eta hortik abiatuta, beharrezko laguntzak emango dizkio haurrari ebatzi behar duen arazoari irtenbidea emateko. Prozesuaren amaieran ikaslea (ez aditua) gai izango da adituak elkarrekintzan erabili dituen tresna eta baliabideez jabetzeko, eta hasieran zuen arazoari irtenbidea emateko.

Hizkuntzaren irakaskuntzaz gabiltzalarik, zeintzuk dira irakasleak haurrari ematen dizkion laguntzak hizkuntza garatzen laguntzeko<sup>4</sup>? Laguntza horien artean interesgarrienetakoa dugu aldamiaia estrategia. Badakigu aldamiaia bidezko laguntza-egoerak direla gaitasun komunikatiboaren garapenean gehien laguntzen dutenak.

<sup>4</sup> Etxebarria (2003:128-129) lanean, irakasleak ikasleei laguntzeko erabil ditzakeen estrategiak beste modu batean antolatzen dira. Etxebarriak orientazio estrategiak, errazte estrategiak, informazio estrategiak, berrindartze estrategiak eta amaiera estrategiak bereizten ditu.

Aldamiaiaren bidez, irakasleak, ikaslearen garapen maila kontuan izanik, beharrezko laguntzak emango dizkio haurrari eta gidatu egingo du hizkuntzaren erabilera berriak, aberatsak eta askotarikoak eskura ditzan.

Aldamiaia estrategia hauek ikasle eta irakasleen arteko jarduera bate-ratuetan garatzen dira eta, arrakasta izateko, beharrezkoa da irakasleak ondo kontrolatzea eman beharreko laguntza norainokoa izan behar den. Hau da, laguntza eman ondoren, ikasleak huts egiten badu hizkuntz baliabidearen erabileran, irakasleak laguntzari eutsi egingo dio edo laguntza handiagoa emango dio. Haurrak arrakastaz erabili badu hizkuntz baliabidea, orduan, irakasleak laguntza kenduko dio apurka-apurka eta ikasleari erantzukizun handiagoa emango dio hizkuntzaren erabileran.

Laguntza mota hau familia eremuan gertatzen diren egoeretan naturaltasunez garatzen da gurasoen eskutik. Gurasoek asmo pedagogiko espliziturik izan barik, haurra gidatu egiten dute hizkuntzaren erabileran eta laguntzak kudeatzen dituzte umearen gaitasunen arabera. Intuzioz eta naturaltasunez egiten dute.

Zelan eramaten dugu eskolara estilo komunikatibo hori, eskolan sortzen diren egoerak hizkuntza lantzeko pertinentek eta probetxagarriak izateko? Barléon, C. & Gentilhomme, C. (2008) lanean oinarrituta, ondoren azalduko dugu irakasleak eman dezakeen laguntza nolakoa izan daitekeen. Hiru motatako laguntza bereizten da: lehenengoa, aldamaia afektiboa, haurraren segurtasuna bilatzen duena; bigarrena, hizkuntzaren erabilera lantzeko aldamaia, haurren ekoizpenak hobetzea bilatzen duena; azkenik, hirugarrena, aldamaia kognitiboa, hizkuntzaren gaineko hausnarketa bilatzen duena.

#### **a) Aldamiaia afektiboa:**

Irakaslearen lehenengo helburua izan behar da, gelako haurrek zer pentsatzen duten edo zer sentitzen duten adierazteko beldurrik ez izatea. Gogoan izan behar dugu, irakaslearen jarrerak (begiradak, keinuak, irribarreak) haurrengan komunikatzeko gogoia eragingo duela.

Nola egin daiteke hori? Helduak buruz buruko komunikazio egoerak aprobetxatuko ditu: esaterako, haurraren ondoan jesarrita eta umeak daraman objektu baten gaineko elkarrizketatik abiarazita (liburu bat, jostailu bat, etab.). Irakasleak umea eroso sentitzen dela egiaztatzen duenean, jarduera hori beste ikaskide batekin jarraitzeko iradoki diezaioke (beste ume bati kontatzeko eskatuz, esaterako).

Aldamiaia afektiboa oso garrantzitsua da maila guztietan, baina bereziki gelan lotsatiagoak diren umeak animatzeko, gutxiago hitz egiten duten umeak begirada baten bitartez interpelatzeko.

Horretan, garrantzitsua da bakoitzak esan nahi duena esateko behar duen denbora errespetatzea eta babestea; adi egotea haurren berba egiteko gogoari; elkarrekintzak bultzatzen dituzten interesguneak sortzea, besteak beste.

## b) Hizkuntzaren erabilera lantzeko aldamiaia:

### b.1) Birformulazioak

Haurrek gelan egiten dituzten ekoizpenetatik abiatuta, hizkuntzaren garapena sustatzeko modu asko daude. Horietatik hedatuena birformulazioa da.

Haur Hezkuntzako hasierako urteetan, 2 edo 3 urteko gelan, haurrak esandakoaren birformulazioa egin dezakegu, hau da, haurrak esandakoa berreskuratu dezakegu bere ekoizpenak osatuz edo aberastuz. Umeak esandako zerbait berreskuratzen dugunean, diskurtsoa biribiltzeko, zabalatzeko egiten dugu. Horren ondorioz, hizkuntzaren erabilera aberasten laguntzen dugu. Adibidez,

- Umeak: *pastela egin.*
- Helduak: *pastel bat egin duzu, eta gero zer?*
  - Laguntza eredu honen funtzioak askotarikoak dira:
  - Haurrak egituratutako mezuak argitzea, talde osoak ulertu ahal izateko.
  - Entzun ez den zerbait birformulatzea, talde osoak entzun ahal izateko.
  - Gaizki eraturako mezu bat ondo egituratzea (sintaxia hobetuz).
  - Gaizki ahoskatutako zerbait, ondo ahoskatzea (fonologia hobetuz).
  - Gaizki erabilitako hitz bat, modu egokian erabiltzea (hiztegia landuz).

Mota askotako birformulazioak daude. Hona hemen horietako batzuk:

**Ordezkapenak:** umearen ekoizpenean esandako hitz bat beste batekin ordezkatzen dugu.

-Umeak: *Andereño, hau non guardatu?*

-Helduak: *Hori zure karpetan GORDE behar duzu.*

**Baturak:** umeak esandako edo egindako esaldia birformulatu, elementu berriak gehituz.

-Umeak: *Txakurra janaria eman.*

-Helduak: *Txakurrari janaria eman diozu gose delako?*

**Laburpenak:** Umeak esandakoa laburtu edo sinplifikatu, mezua ulergaitza delako.

Egoera: Umea Txanogorritxuren ipuina kontatzen ari da.

-Helduak: *Eta gero zer gertatu zen?*

-Haurrak: *jan zuen amamari, tok-tok-tok, sartu, nor da? Txanogorritxu nai zuen eta amama sartu sartu ...*

-Helduak: *Orduan, otsoak amama jan ostean, amamaren arropak jantzita obean sartu zen, ezta? Eta gero, zer gertatu zen?*

**Aldaketak:** Umeak esandakoaren egitura aldatzen dugu.

Egoera: Umea zazpi antxumeen ipuina kontatzen ari da.

-Haurrak: *... eta gero ama joan zen, eta otsoa ikusi zion ...*

-Helduak: *Orduan otsoak ama ikusi zuen etxetik irteten?*

**Ikaskideek egindako birformulazioa:** Askotan, irakasleak berak birformulazioak egin beharrean, ikaskideei birformulatzeko eska diezaieke. Modu honetan, eta haurraren mailaren arabera, hizkuntzaren gaineko hausnarketa bultzatzen dugu.

b.2) Beste laguntza mota batzuk:

Umeari diskurtsoan aurrera egiten laguntzeko, umeak ez dakien hitz bat esan dezakegu.

Umeei sentitzen dutena edo esan nahi dutena adierazteko zailtasunak dituztenean, esan nahi dutena aurreratuz lagundu ditzakegu. Aldamiaia afektiboarekin lotuta dago ideia hau, zer sentitzen duten ulertzen dugula adierazten diegulako.

Adibideak ematea ere interesgarria izan daiteke, esaterako, umorea erabiltzeko eskatzen diegunean, hobe da alde aurretik irakasleak txiste bat kontatzea, adibide gisa.

### c) Aldamiaia kognitiboa

Egiten dugun jardueraren helburua hizkuntza lantzea denean, helduak haurrari hizkuntzaren gaineko hausnarketa egiten lagundu beharko dio. Hausnarketa hizkuntzaren hainbat mailatan egin daiteke:

Komunikazio mailan: eska diezaiokegu altuago hitz egiteko mundu guztiak entzun ahal izateko; hartzailea nor den kontuan hartzeko eska diezaiokegu...

Egoera: korroan egindako jarduera baten ikasitakoa esaten ikaskideei.

Heldua: *ban atzean dagoen Unai ere entzun behar du, orduan, abalegindu zaitetz altutxoago berba egiten*

Heldua: *beste gelako umeek ez dute ikusi nola egin dugun... beraz, ondo-ondo azaldu beharko diegu ...*

Baliabide linguistikoen mailan: hitz batek izan ditzakeen esanahiez hausnartzen lagun diezaiokegu.

Heldua: *berba horrek beste esanahi bat ere badauka, esan gura du zuhaitzaren orria, baina beste orririk badago? Eta bostoa zer da, orduan?*

Testu mailan: ezer azaldu edo kontatuko badu, helduari egindako diktaketa baten bitartez, esaterako, idatzi aurretik atalen gaineko hausnarketa egin dezakegu hurrekin batera.

Heldua: *Bazkaldu ostean zer egin du? Eta aurretik? Orduan zein kontatuko dugu lehenago?*

Aldamiaia estrategiaren bidez helduak haurraren diskurtsoan parte hartuko du; elkarrekintzan eta diskurtsoaren kudeaketan partaide izango da, baina ez ditu ereduak inposatuko. Helduok, interakzioaren bitartez, haurrek egiten dituzten ekoizpenak aberastuko ditugu, modu egokian egituratzen lagunduko diegu. Hizkuntzaren erabilerak besteengan, norberarengan edota objektuetan duen eraginaz ohartarazten lagunduko die irakasleak ikasleei. Hizkuntzak zerbait eskatzeko, argudiatzeko edo agintzeko balio du; hizkuntzak objektuak izendatzeko, deskribatzeko balio du; hizkuntzaren bidez errealitateko gertaerak deskribatu edo azaltzen dira; hizkuntzak euren burua azaltzeko eta justifikatzeko balio du.

Aldamiaiaz gainera, sarritan irakasleak elkarrekintza gidatu egin behar du haurrak berba egitera animatzeko, esandakoaren gainean hausnartzeko edota ezagutzaren aurkikuntzan aurrera egiten laguntzeko. Horrelakoe-tan, oso garrantzitsua da, batetik, irakasleak galderak egiteko modua zaintzea, eta, bestetik, hitz egiteko txandak ondo kudeatzea:

#### d) Galderak

Galdera irekiak.

- Hitz egiten jarraitzeko: *Eta orduan?*
- Gehiago esatera animatzeko: *Eta hori zelan da?*
- Argudiatzera animatzeko: *Ziur zande?*
- Esandakoaren gainean hausnartzeko galderak: *Zuk uste duzu hori baino ez baduzu esaten, Markelek ulertuko duela?*
- Lotsatiak diren haurrak animatzeko, hainbat estrategia erabil ditzakegu: ekolalia (esandako azkena errepikatu), “mm” haurrak hitz egiten jarraitzeko edo *eta orduan?* bezalako galderak.

#### e) Hitz egiteko txanden kudeaketa

Arlo honetan oinarrizko arau batzuk izan beharko genituzke kontuan:

- Ikuspuntuak batzen bagabiltza, banan-banan hitz egiteko eskatu.
- Galdera bat erantzuteko eskatuz gero, irakasleak pazientzia izan beharko du, ikasleak erantzuna emateko behar duen denbora errespetatuz.
- Galdera egokiak formulatu beharko ditu egiten dituzten aukerak arrazoitzen laguntzeko (debate batean esaterako...)

Oso garrantzitsua da irakasle on aldetik haurrek esaten duten horretan **interesa** erakustea eta haurrek esaten dutena **aintzat hartzea**. Zentzu horretan, hausnarketa egin behar dugu akatsak zuzentzearen gainean. Argi dago, horrela erakutsi dutelako hainbat ikerketak, formaren zuzenketek edo gramatikako zuzenketek ez dutela helduok espero dugun eragina, ez direlako beti umearentzat onuragarriak. Aldiz, egiten diren zuzenketak edo ekarpenak semantikarekin zerikusia badute, hau da, haurrek esan nahi duten horrekin zerikusia badute, esandakoari hedapenak proposatuz, elkarrekintza sustatuz, aberastuz, ideia berriak proposatuz edo elkarrizketaren gaiarekiko interesa mantenduz, haurrari hizkuntza gartzzen lagunduko diogu.

Hortaz, zuzenketak egiteko orduan, ezinbestekoa da geure buruari honako galdera hauek egitea:

- Haurrak egin duen akatsa sistematikoa da? Edo behin edo bitan baino ez du egin?

- Akatsa egonkorra da? Batzuetan, hizkuntzaz jabetzean, haurrek hipotesiak egiten dituzte hizkuntza horren arauari buruzkoak, eta arauak orokortu egiten dituzte salbuespenak deskubritu aurretik. Fase horretan ote daude?

Edonola ere, akatsak zuzendu behar baditugu, birformulazioa da modurik egokiena. Haurrak modu ez-gramatikalean esandakoa hartu eta guk errepikatu, modu gramatikalean esanez.

Irakasleak erakutsi behar du prest dagoela ikasleei entzuteko eta baloratzeko duela haurrek komunikatzeko egiten duten ahalegina. Era berean, irakasleak beti animatuko ditu haurrak zehatzagoak izatera. Haurrak ezin badu gehiago zehaztu, irakaslearen eginkizuna da hipotesiak botatzea haurrak esan nahi duen hori interpretatzeko: .... *esan nahi duzu?* edo .... *uste duzu?*

Laburbilduz, irakaslearen parte hartzea sistematizatzen badugu, eta interakzio mota bakoitzarekin zer lortuko dugun argi izanez gero, eskolako edozein egoera aprobetxa dezakegu hizkuntzaren hainbat erabilera planifikatu eta lantzeko. Horrela, gelako eguneroko ikasketa egoerak hizkuntzaren garapena bultzatzeko egoera bilakatuko dira eta hizkuntza egoera anitz eta esanguratsuetan landuko dugu<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Artikulu honetan zehar elkarrekintza egoerei buruz aritu gara; bereziki hizkuntzaren jabeakuntza garaian, garapena sustatzeko eta erabilera batzuen irakaskuntza ziurtatzeko estrategiei buruz, hain zuzen. Hala ere, haurrek, hiru urtera hurbildu ahala, gero eta protagonismo handiagoa hartuko dute elkarrekintzan eta, apurka-apurka, testu atalak tartekatzen joango dira elkarrizketan. Egoera komunikatibo hauetan, zati monologalak gero eta garrantzitsuagoak izango dira: *zer egin duzu asteburuan? Kontatuko diguzu ipuina? Zelako koilar polita, nola egin behar da? Zergatik jausten zaizkie orriak zubaitzei?* Testu horiek edo testu atal horiek sortzeko, ez da nahikoa aipatutako marko didaktikoa. Testu autonomoen eraikuntza lantzeko aldamaia handiagoa emateko ekintzak diseinatu behar dira. Hau da, ikasleari jarraibideak eman behar zaizkio, elkarrizketa egoeran adierazpide batzuk erabiltzetik testu autonomoaren eraikuntzara gidatzeko. Horretarako oso interesgarriak dira hizkuntzako proiektuak eta sekuentzia didaktikoak, bereziki 4-5 urteko gelan erabilera monologal horiek agertzen direnean. Proposamen hori Ginebrako Berrikuntza Mugimendu Pedagogikoak egindakoa da eta beste hainbat leku eta editorialetan kopiatuta eta egokituta dago: Katalunia, Valentzia, Euskal Herrian eta abarretan. Lan honetan, ordea, ez gara sekuentzia didaktiko horietaz mintzatuko, horien erabilera haur hezkuntzako gelan oso interesgarria den arren.

## 5. Ondorioak

Artikulu honetan zehar Haur Hezkuntzako irakasleek izan ditzaketen zailtasunen aurrean, lagungarriak izan daitezkeen baliabideak edo argibideak aurkezten saiatu gara. Gure ustez, eskoletan bigarren hizkuntzaren jabetzaren eta garapena bermatzeko, gelan egingo diren jardueren hausnartu behar da, zer-nolako hizkuntza erabilerak egingo diren aurreikusteko. Jardueraren helburua zehazteak, haren bitartez landuko diren abilezia komunikatibo eta eduki linguistikoak definitzea dakar.

Zehaztapen maila honek onura bi ekarriko dizkigu irakasleoi. Batetik, ikasleen trebetasunak modu eraginkorragoan lantzeko aukera emango digu, gelako esku-hartzea egokia izan den egiaztatuz. Bestetik, ebaluaketari dagokionez, irizpide zehaztuetan oinarrituta egin ahal izango da. Irakaslea ikasleen abiapuntua irudikatzen moduan egongo da, bai eta egin duten aurrerapena baloratzeko ere.

Ikasleen jarduna behagarria izateko, uste dugu komenigarria dela gelan sortzen diren egoeren egituraketa anitza izatea. Azaldu dugun bezala, hizkuntzaren jabetzaren eta garapenean funtsezkoak dira elkarrekintza egoerak. Gelan era askotakoak izan daitezke. Elkarrekintza talde handian sustatu daiteke, talde txikietan ere aukera dago elkarriketa batzuk egiteko eta irakasleak ikasleekin buruz buruko elkarriketak ere izan ditzake. Garrantzitsua da umeak egoera horietan guztietan jartzea, erabilera anitzetan trebatzeko.

Euskararen erabileraren kalitatea dela-eta irakasleen kezken artean aipatu baitugu, hizkuntzaren erabilera gelan sortzen diren ikasketa egoerei lotuta planifikatzen bada, haurrak euskararen erabilera erreala, askotarikoa eta aberatsa egingo du, beti ere ematen dizkiogun ereduetan oinarrituta. Gainera, eguneroko lanean, euskarak ikaskideen arteko interakzioetan daukan erabilgarritasunaz ohartaraziko ditugu, lotura afektiboa euskararen bitartez sustatuko dugu; horrek ekarriko du haur horiek eskolatik kanpo ere ziurtasun nahikoa sentitzea euskara erabiltzeko.

Azkenik, irakasleak gogoan izan behar du hizkuntzaren garapen horretan duen rola. Alde batetik, irakaslea eredu da. Irakasleak egiten duen hizkuntzaren erabilerak umearen hizkera baldintzatuko du. Alde horretatik oso garrantzitsua da gogoan izatea alderdi hauek:

- Argi eta adierazkortasunez hitz egin behar da: goranzko intonazioa, eritmo geldoa, ahoskera argia, keinuak erabiliz.



- Irakasleak egoki eta zuzen hitz egingo du, eta hizkuntzari dagozkion egitura jatorrak erabiliko ditu. Egituraren aldetik, esaldiak sinpleak bai, baina era askotakoak eta aberatsak, hiztegi, morfologia zein sintaxi aldetik.
- Esplizitua izango da. Hasieran hizkuntza testuinguruari lotuta erabiliko du irakasleak.
- Irakasleak lehenengo pertsona erabiliko du bere buruari erreferentzia egiteko.
- Proposatuko duen eredu linguistikoa akademikoa izango da. Ez dugu saihestuko arloko kontzeptuak erabiltzea, nahiz eta apurka-apurka eta behar den aldamiarekin sartu.

Beste aldetik, hurrek hizkuntzan egin behar dituzten aurrerapenetan irakaslea gidaria izango da. Ziurtasun afektibotik abiatuta, irakasleak hainbat laguntza mota eskain diezazkioke umeari, modu horretan, umearen ekoizpenak aberastuz eta hedatuz.

## BIBLIOGRAFIA

- Alario, M.C. (koor.) (2004) Portfolio europeo de las lenguas. “Mi Primer Portfolio”. 3-7 años: Guía didáctica. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Agirregabiria, M. (2006) “Modelos lingüísticos en la educación vasca. <http://mikel.agirregabiria.net/2006/lenguas.htm>
- Barléon, Ch. & Gentilhomme, C. (2008) *Démarches et outils pour le langage oral. Construire et progresser*. Editions CRDP d’Alsace. Strasbourg.
- Ceccaldi, M. (2002) *Pratiques langagières en maternelle*. CRDP de l’académie d’Aix en Marseille.
- De Diego, J. (1998) “La evaluación en la escuela infantil (3-6 años): ¿Quién necesita qué información y para qué?”. *Aula de innovación educativa* 72, 12-15.
- Etxebarria, A. (2008) “Estrategiak hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan: O’Malley eta Chamot-en ekarpena hizkuntzen irakaskuntzan”, *Litterae Vasconicae. Euskararen Iker Atalak* 10. Labayru Ikastegia. Bilbo.
- Etxebarria, F. (1999) *Bilingüismo y educación en el país del euskara*. Erein. Donostia.
- Etxebarria, F. (2003) *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Elhuyar. Usurbil.
- Europako Kontseilua (2001) Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako *Europako Erreferentzia Markoa*. HABE (2005). Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila euskarazko bertsioa.
- Eusko Jaurlaritza – 121/2010 Dekretua. *Haur Hezkuntzako Euskal Curriculum*. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/curriculum\\_vigente/dc\\_educ\\_inf\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_vigente/dc_educ_inf_e.pdf).
- Eusko Jaurlaritza (2007) “Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn”. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/die9/eu\\_2068/adjuntos/TXOSTEN\\_OSOA\\_EUSK.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/die9/eu_2068/adjuntos/TXOSTEN_OSOA_EUSK.pdf)
- Hindryckx, G. & Nyssen, M.C. (2007) *L’oral au quotidien: pistes de réflexion et d’action pour l’enseignement du langage oral au cycle 2 ans et demi à 5 ans*. Centre Technique de l’enseignement de la communauté française de Belgique.